

GURASOENDAKO ALDIZKARIA

aurrera begira



GURASOENDAKO ALDIZKARIA

aurrera begira

Laguntzaileak:

- Bergarako Udal Euskara Zerbitzua
- Bergarako Udal Artxiboa
- Bergarako Udaleko Hezitzaileak
- Bergarako Udal Kirol Zerbitzua
- Aranzadi ikastola
- Mariaren Lagundia ikastola
- Kale hezitzaileak
- San Martín ikastola
- Ipintza institutua
- Berrigara
- Lea Artibaiko Amankomunazgoa
- Jardun Euskera Elkartea
- Xipizaro Ludoteka

Maketazio eta inpresioa: KOH diseinu grafikoa
eta inpresio digitala

Egilea: Bergarako Udala
Gizarte Ongizateko
Prebentziorako zerbitzua
San Martín Agirre plaza, 1
20570 Bergara
Tlf: 943779126 • Faxa: 943779182
E-maila: aloidi@bergara.net

aurkibidea:

4-5 orrialdeak: 0-5 urtera
JAIO BERRIEN UR JARDUERA
Unai Asurmendi Etxarte
Bergarako Kirol Teknikaria
Heziketa fisikoan lizentziatua
Igeri jardueran espezializatua

6-7 orrialdeak: 6-11 urtera
ESKOLA PORROTA
Miren Amor
Udaleko Prebentziorako Teknikaria

8-9 orrialdeak: GURASOEN GALDERAK
Jose Ramon Fernandez

10-11 orrialdeak: 12-18 urtera
NERABEZAROA ETA SEXUALITATEA
Iker Alvarez
Hirusta programako psikologoa

Oharra: Gurasoen galderak atalean zure zalantzak erantzunak izatea nahi baduzu, lasai egin. Prebentziorako Zerbitzura zuzendu zaitez, telefonoz deitu edota E-maila idatzi eta erantzuna hurrengo atalean argitaratuko dugu. • Tlf.: 943779126 • E-maila: aloidi@bergara.net.



Babesleak:

Jardun



Bergarako Udala

SARRERA

Oraingo honetan Guraso Eskoletan parte hartu duten hainbat gurasoren iritzia jaso dugu.

Ana Galfarsoro

(Haur Hezkuntzako taldea)

Bi aldiz hartu du parte.

Bere iritziz oso esperientzia polita izan da eta bi aldiz parte hartu izan arren ez da errepikakorra izan. Aurretik ikasitakoa osatzeko balio izan dio. Bere esanetan merezi duen ikastaroa da eta beste batzuei gomendatzeko modukoa dela uste du.

Puri Mellado

(DBH/DBHOko taldea)

Bi aldiz hartu du parte oso gustura ibili da eta merezi duela uste du.

Elena Garai

(Haur Hezkuntzako taldea)

Bi aldiz hartu du parte. Oso gustura ibili da. Bere esanetan batzuetan haurarekin izan beharreko jokaerarekin despistatua ibiltzen zarela uste du eta guraso eskoletan umearekin jokatzeko irizpideak jasotzeaz gain beste guraso batzuen esperientzia ezagutzeko aukera dagoela uste du eta norberari gertatzen zaiona besteei ere gertatzen zaiela ohartzen zarela dio.

Bere pena aurtengo ikasturtean Lehen Hezkuntzako taldean parte hartu ezin izatea izan da, ez baita taldea sortu. Ikastaroaren iraupenari (10 saio) egokia deritzo eta luzatuko balitz parte hartzen jarraituko luke.

Nerea Alzelai

(DBH/DBHOko taldea)

Urte batzuk badaramatzat Guraso Eskoletan parte hartzen eta nire balorazioa oso positiboa dela esango nuke.

Ez dakit inoiz erraza izango zen, baina guri tokatu zaigun garaia zaila da seme-alabak hezteko. Batetik gure aurrekoen heziketa moduak zalantzan jartzen ditugu, eta, bestetik, bistan ditugu erreakzio modura egon den kontrako joera (askatasuna, mugarik eza, ...) ematen ari den emaitzak.


Hori dela eta, guztiz beharrezkoa iruditzen zait gure heziketa lanean lagunduko diguten "pistak" emango dizkiguten argibideak izatea.

Gure eguneroko eritmoak ez digu lagatzen pentsatzen zeintzuk izan daitezkeen egunen joanean etengabe sortzen diren arazo eta gatazkak konpontzeko zentzuzko soluziobideak eta horren arabera jokatzeko.

Horregatik, ondo etortzen da kezka eta buruhauste antzekoak dituen jendearekin eta gaiaz jantzita dagoen irakaslearekin bildu, gaiaz hitz egin eta hausnartzea. Horrela egunean-egunean sortzen diren arazoei irtenbideak topatzeko eta hainbat egoeratan probetxuzko izan daitezkeen errekurtsoak geureganatzeko ere balio du eta .

Laburbilduz esango nuke niretzat aberasgarria izan dela, gure alaben bizitzako bilakaera eta etapa bakoitzean gertatzen zaiena ulertzeko argibideak jaso eta presente izaten lagundu didalako eta, azken finean, euren heziketan jarrera aktiboa izaten lagundu didalako, protagonista bihurtu eta tokatu zaigun momentuko arrisku eta abantailez kontziente izanik.





Unai Asurmendi Etxarte

Bergarako Kirol Teknikaria
Heziketa Fisikoan Lizentziatua
Igeri jardueretan espezializatua

JAIOPERRIEN UR JARDUERAK

SARRERA

Gure inguruko kiroldegietara begiratzeta baino ez dago jaioperrien igeriketaren arrakastaz jabetzeko. Bertako itxaron zerrendek ondo baino hobeto adierazten digute gurasoek jarduera honetan duten interesa.

Elkarrizketa honetan, era zuzen, erraz eta azkar batean, gai honen inguruko hainbat alor jorratuko dira. Horretarako, udaleko kirol zerbitzuko arduradunarengana jo dugu.

Elkarrizketaren gaiari zuzenean helduz eta gurasoak gaiarekin lotzeko, hitz gutxitan, zer da jaioperrien igeriketa?

Hizkuntzarekin zehatzak eta heziketa fisikoaren pedagogiarekin leialak izan nahi badugu ezingo genuke Jaioperrien Igeriketa esamoldea erabili. Termino bereko bi hitzak ez dira zuzenenak. Batetik, jarduera honetan igeriketa irakasten ez delako eta bestetik, ekintza hauetan jaioperriak eta gurasoak elkar harremanetan daudelako.

Hala ere, onartu beharra dut, kalean ahoz aho dabilen esamoldea jaioperrien igeriketa dela.

Beraz, termino zuzena zein izango litzateke?

Oraindik, adituen artean adostu gabe dago. Nigatik, jaioperri-guraso berrientzako ur jarduera oso polita iruditzen zait, batez ere, guraso-ume

harremana azpimarratzen delako eta berau delako nire ustez, ekintza honetako ardatza.

Zeintzuk dira ekintza honen helburuak.

Helburuak bi mailatan bilduko nituzke. Lehenak, jaioperriari dagozkionak; eta bigarrenak, jaioperriaren eta bere gurasoaren arteko harremanetatik eratortzen direnak.

Lehenengoari helduz esan, ur ingurua jaioperri batentzat eremu oso berezia dela. Zenbait psikologok diote jaioperri batentzako eremu naturalena dela amaren sabeleko egoeratik oso hurbil dagoelako. Nik horrenbeste esatera ez naiz ausartzen, egia borobila dena zera da: umeak uretan duen berezko prestakuntza da.

Jaioperri batek jaiotzen denetik bizi-rauteko berezko dituen hainbat erreflexu eta automatismo ditu. Horien artean, egon badaude ur eremutarako ezin hobeto datozkigunak.

Zeintzuk dira erreflexu hauek?

Batetik eta ezagunena, eztarria ixteko erreflexua. Jaioperria bere osotasunean uretan murgiltzen dugunean, honek arnas bideak urez bete ez daitezen, zintzur hesteko hodian dagoen balbula baten bidez arnas bideak itxiko ditu. Honi, Nahigabeko Apnea (apnea inconsciente) esaten zaio. Bestetik, ez urperatzeko gaitasuna dago. Jaioperri bat heldu batekin alderatzen badugu eta gorputz pro-

portzioei erreparatzen badiogu, azkar asko arreta deituko diguna burua da. Jaioperri bat uretara botatzen badugu, gora igo araziko dion elementurik garrantzitsuena burua izango da. Buruak gorantz egiten duen flotagailuaren lanak egingo ditu.

Ba al da erreflexu gehiagorik?

Beso hanken bultzada saiakera hutsalak. Jaioperria uretan aske uzten dugunean, beso eta hankak mugitu egiten ditu. Askok keinu hau uretan propulstatu nahi duen umearekin lotzen dute. Ez da hala, mugimendu horiek oreka-desoreka mugimenduen saiakerak baino ez dira.

Honekin batera, ur eremuak duen ezaugarri nagusi bat gogora ekarri behar dut: Grabitate urritasuna, lehorrean ez bezala grabitateak gutxiago eragiten du elementu likidoan. Irudika ezazu jaioperri bat bere maindirean.

Uretan askatasuna erabatekoa da: Gorputz-enborra bere osotasunean luza daiteke; gorputz adarrak esku-ukondo-beso eta aldaka-belaun-oin giltzadurak erabateko anplitudetan mugi daitezke; buruaren pisua flotabilitateak konpentsatzen du.

Non du jaioperri batek halako askatasunarekin mundua konkistatzeko aukera hoberik? Non du mugimendu berriak esperimintatzeko parada eraginkorragorik?

Erreflexu hauek guztiak muga eperik al dute?

Jaioperrien mundua mundu oso ezezaguna da. Denok pasa gara adin horietatik baina ezer gutxi gogortzen dugu. Askok ikertu den arren, psikari dagokionean oraindik orain oso gutxi dakigu. Ikertzaile batzuek diote erreflexu hauek 6-9 hilabete artean desagertzen direla eta horregatik, ezinbestekoa dela ur jarduera hauek 6 hilabetetik aurrera egitea.

Nire esperientziak eta beste lankide batzuekin izandako elkarrizketetan hau eztabaidatzeko gai ez gara ikusten. Guretzako argi dagoena zera da: 9 hilabeterekin edo urtebeterekin etorri diren guraso-umeek ez dituztela inongo arazorik izan planteatu diren proposamen didaktikoetan.



Beraz, zein da adinik egokiena ekin-tza honekin hasteko?

Ez dago adin zehatzik. Udal-erri gehienetan, 6 hilabetetik aurrerako eskaintza egiten da. Nik neronek 6 hilabeteko muga begi onez ikusten dut.

Hala ere, gauza bat argi eduki behar da adinik onena umeak berak markatuko duela. Gurasoek berek umea bainatzerakoan ikusiko dute umea prest eta gogoz dagoen ala gehi-ago itxoin egin behar den. Halako ekintzetan norberak bere erritmoak ditu eta garrantzitzo-ezinbestekoa horiek errespetatzea da.

Erritmoak errespetatzen badira eta lanak zuzen eta artez egiten badira, zeintzuk dira jardueraren onurak?

Lehen aipatutako helburuen hariari helduta azalduko dizkizut onurak. Jaioberriarentzako onura zuzenak izango lirateke:

- Jarduera honek, garapen psikomotorra errazten duela, umeari eskaintzen zaion espazio konkista aukera berriagatik.
- Edozein gizakitan ariketa fisikoak dituen onura berberak erakarriko dizkio uretako jardueraren honek jaioberriari: gaitasun fisikoen hobekuntza orokorra, aparatatu lokomotorren garapena errazten du, hezurren osaketan laguntzen du, bihotz arnas aparatuen hobekuntza, sistema immunologikoa kitzikatzen du, ...
- Zenbait ikerlarik (DIEM doktoreak, 1980) gaitasun intelektuala sustatzen duela diote.

Onura guzti hauek bereganatzeko zeintzuk dira bete beharreko baldintzak?

Haurrak gutxienez, 6 hilabete izan behar ditu. Uraren tenperatura 31°-32° inguru egon behar du. Saioren iraupenak 30 minututik gorago ez luke pasa behar. Batetik, haurrak hotz daitezkeelako; bestetik, saioren intentsitatea dela-eta. Jaioberriek jarduera hau oso bizi egiten zaie, emozioa pil-pilean dago. Horregatik ez da komeni saiok oso luzeak izatea.

Ur jardueren baldintzekin jarraituz, zein da gurasoek jarraitu beharreko irizpide garrantzitsuenak?

Arreta eta entzumena. Umeak hitz egiten ez duen arren, asko esaten du. Gurasoek umearen beharrak ondo baino hobeto ezagutzen dituztenez

beraiek izan behar dira haurraren irakaskuntza erritmoa markatu behar dutenak. Azken puntu honekin, aipatzen nuen bigarren helburu multzoa ukitzen dugu, nire ustez garrantzitsuenak: Guraso-ume harremana da.

Ekintza honen "urra" ur jardueraren bitartez guraso eta seme-alaben artean sortzen den harreman afektiboa da. Gizarte honek bultzatzen gaituen bizi erritmo zoroaren ondorioz, gurasoek geroz eta, denbora gutxiago konpartitzen dute beraien seme-alabekin.

Ur jarduera hau aukera paregabea da gure seme-alabarekin esperientzi hobezin eta ahaztezin bat bizitzeko. Umeak gurasoarekin ikasten duen heinean ikasiko du gurasoak ere. Umearen konkista eta lorpenetan parte hartzea eta horiek guztiak elkarrekin konpartitzea bizitzako une hunkigarrienak izan daitezke.

Ekintza hau gune eta une oso berezian bilakatuko da. Bertako begiraleak ekintzak proposatu baino ez ditu egingo, gurasoak umearekin batera izango dira bizi esperientzia honen ardatza.

Azken mezuren bat bidali nahi zenuke?

Bat baino bi mezu, lasaitasunarena eta ausardiarena.

Guraso asko zoroan pare dabilta umeak jardueraren hauetan izen emateagatik. Udal asko gainezka daude eta ezin diote egoera honi aurre egin. Nik galdera batekin erantzun nahiko nuke. Momentu honetan lerro hauek irakurtzen ari zaretenon artean, zenbatek hartu duzue parte haur zinetenean mota hauetako ur jardueratan? Gabeziaren bat sortu dizue honek? Garapenean oztopen bat erakarri dizue? Noski ezetz. Horregatik, eta hala ere, interes bizia baduzue ausardia gomendatzen dizuet. Zuek zeuk, guraso bezala, umea hartu eta igerilekuan sartu ezazue. Guraso berezko senak ondo baino hobeto bideratuko zaituztete egin daitezkeen eta ezin egin diren ekintzen artean. Umeak berak aginduko dizue zer duen gustuko eta zer ez.

!Al agua patos!, Laure Heston egilearena, (RBA libros, 2000.).
www.i-natacion.com eta
www.natacion-bebes.com



La natación o actividades acuáticas para recién nacidos están muy en boca de todos/as últimamente y todos los padres quieren participar en esta actividad.

Para realizarla convenientemente hay que tener en cuenta ciertas pautas:

- El agua ha de estar a una temperatura de 31°-32°
- El bebe debe tener un mínimo de 6 meses.
- La duración de las sesiones debe ser de un máximo de 30 minutos.

Lo que es "oro puro" es la relación afectiva que se crea entre padres/madres e hijos/hijas mediante esta actividad. Y es que, como consecuencia del ritmo frenético que nos impone nuestra sociedad, los padres/madres comparten cada vez menos tiempo con sus hijos/hijas.

Esta actividad acuática puede ser una ocasión única de vivir una experiencia inmejorable e inolvidable con nuestros hijos/as. En la medida que el niño/a aprende con los padres/madres, estos aprenden también. Participar en las conquistas y logros del niño/a y compartir todo ello juntos puede reportarnos los momentos más emocionantes de nuestra vida.



Miren Amor
Udaleko
Prebentziorako
Teknikaria

ESKOLA PORROTA

Oraindik ere, eskola porrota Hezkuntza sistemak bizi duen errealitatea da. EAEn eskola porrota %17,5ekoa da eta datu hauei absentismoa eta uzte-maila gehitu behar zaie

NOIZ ESAN DAITEKE ESKOLA PORROTA DAGOELA?

Ikasleak bere maila eta adinerako aurreikusitako helburuak betetzea lortzen ez duenean eta bere baliabide intelektualen aprobetxamendu erreallik egiten ez duenean.

ZEINTZUK DIRA ESKOLA PORROTA ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK?

Arrazoiak asko dira, baina hainbat ikerketak azaltzen dutenez %2 faktore intelektualen ondorio dira, %29 nahasketa emozionalak eraginda eta %10 Arreta Defizitak eragindako Nahasketa ,hiperaktibitatearekin, arazoari lotuta dago.

- **Intelektualak:** Adin kronologiko eta intelektualaren arteko desegokitatsunaren ondorioz sortzen dira, eta adimen urritasuna duten haurrengan zein talentu handiko haurrengan ematen da. Halaber, aurreko ikasturtean oinarri sendorik hartu ez izanaren ondorioz gerta daiteke. Adimenaren neurketa banatzen den bi esparru orokorretako batean urritasunak antzematea izaten da ohikoe-

na: ahozko espresioa eta eskuzko exekuzioa. Lehenengoan ulermen eta hizkuntzaren erabilera hartzen dira kontuan. Bigarrenean beriz, koordinazio basomotorea, pertzepzioaren antolaketa, ekintza baten inguruan planak egiteko gaitasuna eta beste faktore batzuk hartzen dira aintzat.

Urritasun intelektuala baldin badago, haurrak ezingo ditu ezagutzak bereganatu eta beste ikaskideekiko atzeratu egingo da. Haur hau hobeto moldatuko da eskola berezian.

- **Motibazioa:** Eskola aprobetxamendu arazo larriak egon daitezke, ikasteko motibaziorik ez badago. Horren aurrean garrantzitsua da ikaslearen inguruko pertsonen aitorrena, onepen soziala eta epe motzerako xedeen lorpena bultzatzea. Horretaz gain, motibazio falta sortzen duten arazoak topatzen saiatuko gara.

- **Arazo organikoak:** Arazo fisiko edo gaixotasun kroniko bat izan daiteke eskola porrotaren arazoia (miopia, hipoakusia, dislexia...)

- **Arazo emozionalak:** Gabezia afektiboak zein gehiegi babestuak dauken haurrengan gertatzen da, hala nola haur hiperaktiboengan, fantasiaz edo gutxiespen sentimenduaz bizi direnengan,...

- **Ikasteko teknika ohitura:** Ikasle

askok ez dakite ikasten eta ikasten ikasi beharra dago; izan ere, asko ikasten ahalegintzea, nola egin jakin gabe, alferrikako lana da.

- **Programazio desegokia:** batzuetan duen heldutasun mailarako oso zailak diren lanak eskatzen zaizkio.

- **Kanpoko faktoreak:** Telebista, bideojoko, ordenagailu eta abarren erabilpen desegokia.

ZEINTZUK DIRA ESKOLA PORROTAREN ERA DESBERDINAK?

- **Hasierakoak:** eskolaratzearen lehen urteetan ematen da eta normalean heldutasun arazoekin loturik egoten da.

- **Bigarren mailakoak:** ordura arte hainbat urtetan zehar arazorik izan ez duen haurrengan ematen da, arazo konkretu baten ondorioz.

- **Zirkustantzialak:** porrota aldi batekoa eta bakana da eta hori dela eta, arazoak aurkitu eta konpondu egin behar dira.

- **Ohikoa:** normalean arazoia jatorri pertsonaletan oinarritzen da (garpes psikomotrizean arazoak, hizkerarazoak, idazmen eta arazo pertsonalak...)

Suspentsoak izaten dira eskolaratze garaia hasieratik.

Eskola porrot era hau arriskutsuena da; izan ere, guraso askok adin tarte honetan ematen den porrotari ez diote behar bezalako garrantzia ematen, beraien ustez txikiegiak baitira. Esan beharra dago, eskola porrota zenbat eta lehenago detektatu eta zenbat eta lehenago ezarri hori ekiditeko bideak, hobe izango dela.

ZEIN IZAN BEHAR DA GURASOEN EGITEKOA?

- Aitortu eta onartu zuen seme-alabak zailtasunak dituela, Arazoa aztertu, heziketa-prozedurak non huts egiten duen antzeman eta gainditzeko beharrezko bitartekoak ezarri.

- Erakutsi maite duzula eta ez bere arrakastengatik, beragatik baizik.

- Bere ikastetxearekin erlazioatutako guztiari buruz informatu.

- Ikaskide edo irakasleekin izan ditzakeen harreman-arazoak ere garran-



Jardun

tzizkoak dira. Ikasketak gurasoen intereseko gaia dela sentitu behar du.

- Gurasoen presentzia eskatzen duten ekintzetan parte hartu.
- Bere behar eta galderei kasu egin.
- Seme-alabari jakinarazi zuk ez duzula galdera guztien erantzuna eta biak elkarrekin aurkitzea proposatu.
- Haurrak bere buruarengan izan behar duen konfiantza indartu.
- Utzi erabakiak hartzen; har ditzala bere adinari dagozkion erantzukizunak.
- Inoiz ez konparatu anai-arreba edo lagunekin
- Inoiz ez alfer edo errudun sentiarazi.
- Izan koherentea. Zure seme-alabak etxean irakurtzen ikusten badu eta zuk harekin hainbat ezagutza partekatzen baduzu, harengan ikasteko desioa piztea errazagoa izango da.
- Jakingura pizten duen giroa sortu.
- Ez egon beti seme-alabaren gainean ikasketak direla eta. Azaldu zeintzuk diren helburuak eta zer espero den haiengandik.
- Erabaki aurretik, hitz egin haurrarekin arazoa zein den eta zein laguntza eskaini diezaiokезun jakiteko.
- Ez mehatxatu, ezta zigortu ere.
- Ikasketek bere teknikak behar dituzte. Erakutsi zure seme-alabei ikasten.
- Saiatu mezu negatiboak ez transmititzen "ikasle txarra zara", esate baterako; izan ere, sinetsi egin dezake eta bere ondorengo garapena oztopatu.
- Ospatu bere arrakastak.
- Klase partikularrak ez dira beti irtenbide egokia. Hala eginez gero, laguntza utzi, nahi diren emaitzak lortu eta gero.
- Bere aisia aberastu. Ez dezala, soilik, telebista ikusi edo ordenagailu edo bideojokoekin jolastu. Erakutsi programa egokiak, eraman museoetara, istorioak kontatu, naturarekin harremana izan dezala.

IRAKASLEEK ETA ESKOLEK ERE EGITEKO HANDIA DUTE EGOERA HONEN AURREAN. ZEIN IZAN BEHAR DA BERAIEI JARRERA?

Ikastetxeek eta irakasleek eskola uztearen eta eskola porrota guthitzearen alde asko egin dezakete. Ikastetxean aukera dago haurren beharrak aztertze. Hori dela eta, beraiei behar desberdinak kontuan hartuta eskola porrotari aurre hartzeko ekintzak bultzatu daitezke. Honela, hauek dira, besteak beste, irakasleen betebeharrak:

- Ikasleari hitz egiten eta adierazten utzi behar zaio.
- Ez utzi gaiak buruz ikasten
- Bizipen pertsonalak adieraztera bultzatu (zer sentitzen duen, nola bizi duen,...) eta, batez ere, bere iritziak (zer iruditzen zaizu lantzen ari garen gai?).
- Ikasleak bere ikaskideen artean harreman hezitzaileak izatea bultzatu behar da.
- Norberaren gaitasunak indartu (bakoitzak duen hoberenarekin lan egiten saiatu)
- Bakoitza baloratua sentituko den giroa sortu gelan.
- Gelako ikaskide bakoitzari zerbaite-tan ona izateko aukera eman.
- Heziketa gaitasunen garapen gisa azaldu.
- Ikasleak beren burua maitatzea bultzatu.
- Nortasuna indartzen lagundu: IZATEA landu eta indartu eta ez EDUKITZEA.
- Ikasle izatea pertsona izatearen gainetik ez jarri.
- Pertsonaren garapen osoan lagundu.
- Ikasle bakoitzak izan ditzakeen zailtasunak detektatu eta horiek gainditzeko lagundu.

Gero eta baloratuagoa dela sentitzeak lagundu egingo dio ikasleari ikasketetan. Irakasleak ikaslearekin benetako harremana izatea lortzen badu, non ikaslea den bezalakoa onartu eta baloratzen duen, honek bere hainbat arazo gainditzeko edota aurre-hartzen lagunduko dio. Hau lan gogorra da eta emaitzak ez dira epe motzean nabarmentzen.

Honetaz guztiaz gain, eskola porrota eta eskola uztearen aurrean eskolaren eta gurasoen arteko harremana ezinbestekoa da eta informazioa elkartrukatu eta eguneratzea oso garrantzitsua da, egoera hauei aurre hartzeko edota irtenbideak aurkitu ahal izateko. Horrekin, haurrak eza-gutu ahal izango du gurasoek eta irakasleek bere ikasketekiko duten interesa eta beraren egoera konpontzeko bideak ezarri nahi direla jakingo du.



El fracaso escolar continúa siendo una realidad instalada en nuestro Sistema Educativo. La tasa de fracaso escolar en la CAV es del 17,5%, y a ese dato hay que añadirle los índices de absentismo y de abandono escolar.

Hablamos de fracaso escolar cuando el alumno/a no consigue cumplir los objetivos previstos para su nivel y su edad y cuando no realiza un aprovechamiento real de sus recursos intelectuales.

El papel de los padres/madres en estas situaciones es fundamental, ya que tienen que demostrar a su hijo/a que le quieren, no por sus éxitos, sino por él mismo. Los padres/madres deben fortalecer la confianza que los niños/as tienen en sí mismos, no deben compararlos nunca con sus hermanos/as o sus amigos/as, no deben hacerles sentirse vagos o culpables, deben celebrar sus éxitos...

Ante el fracaso escolar, es imprescindible la colaboración entre padres/madres y profesores y es necesario el intercambio y actualización de información entre ellos para poder enfrentarse a este tipo de situaciones y encontrar soluciones. De esta manera, el niño/a podrá saber que sus padres/madres y profesores tienen verdadero interés en su educación y que quieren poner los medios para solucionar su situación.

Cuanto antes se detecte el fracaso escolar y antes se pongan remedios para evitarlos, mejor será.

Bibliografía:

- "Del fracaso al éxito escolar", Bernabé Tierno Jiménez. (Plaza & Janés editores, 1993)
- www.revista.consumer.es
- www.entornosocial.es
- www.psicopedagogia.com
- www.map.es
- www.zientzia.net

GURASOEN GALDERAK

Jose Ramon Fernandez

(Psikologoa, Psikologia konduktualeko kabinetea)
c/ Ramon Maria Lili 2 BERGARA. Tlf: 943765939



1) 11 urteko semea daukat eta ez zait gustatzen berak dauzkan lagunetakoa bat. Nire ustez lagun horrek ez dio onik egiten, baina semeak beti jolastu nahi du lagun horrekin. Zer egin dezaket nik semea konturatu dadin lagun hori ez dela ona berarentzat?

bueltan ekartzeko prest zaudela esaezu. Lagunekin egiten duena eta nora doan zaindu. Beren gurasoek beraiek non eta norekin dauden eta zer egiten ari diren badakitela dakiten gazte adolezenteek ez dute hain erraz beren osasuna eta segurtasuna arriskuan jartzen. Seme-alaba

Kasu zehatz honetan, lehenik eta behin ikasiko dugu seme-alabaren lagunak duten itxuragatik ez juzkatzeko. Hala ere, ondo-ondo aztertu ondoren lagun hori seme-alabari ez zaiola komeni pentsatzen jarraitzen badugu, ez diogu etengabe esango uste dugun hori; izan ere, ez badiogu lagunarekin erlazionatzen uzten gure kontra jar daiteke, gurasoen eta seme-alabaren arteko harremana eta konfiantza zenbaterainokoa den. Edozelan ere, erabil daitekeen estrategia bat da (epe ertainera) adieraztea ez zaudela lasai duen lagun horrekin eta azaltzea zergatik den. Lagun horrekin jarraitzea komeni zaion ala ez pentsatu beharko du eta horretan ondo lagundu diezaiokegu, elkarrekin gogoeta eginaz ea hura ezagutzen duenetik eskolan nota txarragoak dituen, hitz iraintsu gehiago esaten dituen, bere janzkera erabat aldatu duen, etab.

Era berean komeni da, lagun horrekin egoteko aukera erabat ukatu gabe, mugatzea lagun horrekin egoteko uzten zaion denbora eta berekin egitea uzten zaizkion ekintzak, bai eta hain problematikoak ez diren beste lagun batzuekin elkartzeko eta egoteko erraztasunak ematea ere. Baina ezin da ahaztu etxean ikasitako balore moralak sendoak badira, "konpainia txarrak" aldi baterako baino ez direla izango.



Kale hezitzaileak

Pertsonek gizartean onartuta daudela nabaritu behar dute eta adolezentsian berebiziko garrantzia hartzen du "taldeko partaide" sentitu beharrak. Etapa horretan, guraso asko gero eta gehiago arduratzen dira beren seme-alaben lagunak haiengan izan dezaketean eraginaz; beldur dira lagunak ez ote dieten gehiegi eragiten, beraien eragina gero eta txikiagoa den heinean. Nahi ez ditugun egoerak gerta ez daitezkeen gurasoek lagun diezaiekegu, eta lagundu behar diegu, lagun onak aukeratzeko. Seme-alabaren lagunak ezagutzen saiatuko gara, merezi du eta. Horretarako, etxea utziko diogu bertan elkartzeko, hitz egiteko, musika entzuteko, pelikulak ikusteko,... Festetara, partidetara eta kontzertuetara eraman itzazu eta

beste etxe batean dagoela ziurtatu nahi duzunean, ez eduki zalantzarik eta bertara deitu, eta berarekin daudenak, dagoen lekua edo egiten ari dena berarentzat egokia ez dela uste baduzu, ez eduki beldurrik eta "EZETZ" esaezu.

Egoera zailak nola ebitatu erakutsi iezaiozu. Seme-alabarekin hitz egin eta erakutsi iezaiozu nola egin aurre taldeak etxeko arauak ez errespetatzeko edo irakasten ari zaizkion baloreen aurka joateko egiten dion presioari. Seme-alabarekin berak bizi ditzakeen egoerei eta egoera horietatik ateratzeko dauden alternatibei buruz hitz egin, horrela seguruago sentituko baita egoera horiei aurre egin behar dienean.

2) Hiru urteko semea daukagu; 2 urteko lehenengo haurra da eta gaur arte berarentzat baino ez genituen begiak. Orain dela gutxi alaba bat izan dugu eta seme nagusiaren jokabidea aldakorra bihurtu da, batzuetan maitagarria da eta beste batzuetan gorrotagarria. Badakigu jokabide naturala dela baina arduratuta gaude eta ezin dugu hori ebitatu.

Jaioberri batek etxe bateko eguneroko erritmoa apurtzen du nahitaez. Beraz, dena bere onera bueltatu arte, behar bada ania baztertuta senti daiteke. Hori gertatzen ohi da haurrak jeloskor daudenean. Beraiei kasu egitea eta maitasuna eta beste onura batzuk lortu nahi dute, eta horregatik agertzen dira gure aurrean agertzen diren bezala. Beren mundua kolokan ikusten dute-

nean, beren burua eta beren gauzak babestu nahian, berezko joera baitute, gauza harrigarriak egiten dituzte, harrigarriak bai guretzat bai beraien-tzat.

Hori dena ebitatzearen, familia bakoitzak erantzuna egokia bilatu behar du, bere errealitatea eta haurren izaera kontuan hartuta. Dena den, badira zenbait jokabide ebitatu beharrekoak: haurra jeloskor dagoe-la ukatzea, guraso edo bikotekide moduan jeloskor jokatzeko, anai-arreben artean pribilegioak ezartzea, anai-arrebak konparatzea edo bata bestea baino hobea dela esatea, errua beti berberari botatzea, bati bestearen portaera txarraren erantzule egitea eta sistematikoki anai-arreben arteko liskarrak ebitatzea, liskarrak, gehiegizko erasoetara edo eraso fisikoetara heldu gabe, positiboa delako, haien arteko gatazkak konpontzen ikasteko balio dute eta. Bestalde, badira beste jokabide batzuk benetan lagungarri izango ditugunak: Zeloak onartzea, denbora bat hartzea seme-alabekin hitz egiteko eta haiei entzuteko, seme bakoitza era desberdinean tratatzea bakoitzak dauzkan premiak kontuan izanda, pribilegioak ezarri gabe; ez gehiegi kezkatzea atzera egiten dutela ikusten badugu eta horri kasu gehiegi egin gabe; seme-alabei informatzea eta azalpenak ematea beren bizitza aldaketa handiak ekar ditzaketen gertaerei buruz.

Hitz batez, semeari edo alabari kasu egiten badiogu, denbora tartetxo bat eskaintzen badiogu, bakarka tratatzen badugu nahi duen guztia eman gabe, zeloek ez diotela gauza

onik ekartzen ulertuko du eta zeloak gairitu ahal izango ditu.

3) Tengo una hija de 16 años que está en la etapa de la adolescencia y debido a las continuas discusiones que tiene tanto con nosotros como con la hermana mayor el ambiente de casa suele estar bastante crispado. La otra hija tiene 22 años y su etapa de adolescente no la recordamos tan dura. Sin embargo con esta la comunicación es imposible. ¿Como podemos mejorar la comunicación?

A veces intentamos por todos los medios que nuestros hijos/as nos hagan caso y no hay manera de conseguirlo. Los padres y madres deben asumir que sus hijos/as reclaman libertad para ser ellos mismos, con sus sentimientos, valores y decisiones y que deben entregar progresivamente pequeñas dosis de libertad y los hijos/as deben entender que la libertad y autonomía se otorgan cuando demuestran responsabilidad.

En esta dinámica de enfrentamiento, su hija ha conquistado una posición de fuerza aprovechando su capacidad de exasperaros, y no va abandonarla si con ello consigue lo que pretende: aburrirlos con sus continuas peleas e imponeros su voluntad. El objetivo será desterrar las peleas para recuperar, en cierta medida, el control de la situación. Se trata de que no tenga ninguna coartada para seguir discutiendo. Si ella actúa de forma terca y empeñada, es inútil que le deis explicaciones, porque no querrá entenderlas. El dialo-

go es la mejor manera de ganar su confianza, pero cuando éste es unilateral, se convierte en monólogo y pierde todo su valor. Los castigos tampoco son útiles, porque con ellos lo único que harías sería reforzarla en su opinión de que todo el mundo está en contra de ella.

Tampoco vosotros os empeñéis en imponer vuestra autoridad a ultranza, pero debéis fijar lagunas normas y límites muy claros para que acepten y asuman compromisos, y prever sanciones por si se rompe algún compromiso o norma, ya que en la práctica es mejor darles responsabilidad y luego pedirles cuentas.

Para desterrar las discusiones y conseguir una comunicación abierta deja que se explique, sin interrupciones, y escúchala con toda la atención sin hacer juicios de valor, dando crédito a lo que dice salvo cuando tengas evidencia de lo contrario. Si se siente escuchada y comprendida y percibe que no la están juzgando, entonces es capaz de expresar lo que siente sin temor. Y sólo entonces podrá reconocer y aceptar o modificar sus sentimientos y conductas.

Si te engaña o falta a sus compromisos, no le grites ni le riñas. Explícale con toda calma de que seas capaz, que ha faltado a vuestra confianza, por lo cual tendrá menos autonomía hasta que demuestre que es digna de confianza.

El mejor consejo que os puedo dar es ser constantes y tener paciencia, escuchar cuando quieren que les escuchen y tomar medidas si el adolescente no cumple con las normas fijadas, aunque duele tomarlas.



Kale hezitzaileak

Iker Alvarez

Hiruta programako
psikologoa



NERABEZAROA ETA SEXUALITATEA

-Ama, zurekin hitz egin nahi nuke-
esan zion Garazik amari.

(Banekien nik arduratuta zebilela.
Ziurrenik ez zuen ingeleseko azterke-
ta gaindituko -pentsatu zuen amak).

- Bai maitea, goazen zure gelara,
eta bertan hitz egingo dugu -eran-
tzun zion, ahalik eta ulerkorren iza-
ten saiatuz.

Ohe gainean jarri ziren eta, amak zer
gertatzen zitzaion galdetzeko aukera
izan aurretik, Garazi negarrez hasi zi-
tzaion.

- Haurdun nago -lortu zuen esatea
negar artean.

Bere ama hitzik gabe geratu zen. Ezin
zuen sinetsi entzundakoa. Errealitatea
ukatu nahian, egoera horretan beste
edozein amak esango lukeena esa-
teko gai izan zen, doi-doi.

- Ziur al zaude?

- Baietz uste dut -esan zuen Garazik
ahopean.

Isilik geratu ziren biak. Amari
Arkaitzen irudia etorri zitzaion buru-
ra, hainbat alditan Garaziz galdetuz
etxera deitu zuen mutilaren irudia,

eta alabak horri buruz hitz egitea
ekiditen zuena. Beharbada bere
alabaren mutil-laguna izango zen.
Mutil horrenganako haserre ikara-
garria sentitu zuen, baita bere ala-
barekiko ere. Nola egin ahal izan
diote hori! Baina haserre berehala
erru-sentimendu bihurtu zen.
Aspalditik bere muturren aurrean
zuena ikusi nahi ez izateagatik erru-
sentimendua. Argi zegoen Arkaitz
bere alabaren mutil-laguna zela,
dagoeneko Garazi ez baitzen nes-
kato bat. Eta jakina, bere alabak
Arkaitzekin harreman sexualak
zituen. Ama gisa, bere neskatoa
emakumea zela onartzea asko kos-
tatzen zitzaion.

Garazik, berriz, beste pentsamendu
batzuk zituen buruan. Gurasoen
erantzunaren beldur zen. Haurdunaldiarekin
aurrera jarraitzea erabakiko al zuen? Gurasoen lagun-
tza jasoko al zuen? Arkaitz berekin
izango al zen? Zalantza gehiegi ziren.
Larritasuna sentitzen zuen eta ez zen
gai argi pentsatzeko. Ezin zion negar

egiteari utzi. Egoera hori bere lagu-
nen errua zela pentsatu zuen, lagu-
nek bultzatu zutela bera sexu-harre-
manak izatera, izan ere, berak izan
ezik mundu guztiak sexu-harremanak
izaten zituela zirudien. Ziurrenik ez zen
hainbesteko izango, baina senti-
tzen zuen sexu-harremanak izatera
bultzatu zutela, bere adinean mundu
guztia modukoa izateko sexu-harre-
manak izatea beharrezkoa zela
pentsaraziz. Gainera ikastetxean
sexualitateari buruzko hitzaldiak
ematen dizkigute! Nahiz eta amodio-
rik ez egin, ordura arte oso ondo
zegoen Arkaitzekin. Berriz ere larrita-
sunak hartu zuen. Hanka sartu zuela
sentitzen zuen, eta inori errua bota-
tzeak edo negar egiteak ez ziola
ezertarako balioko.

Ideiak argitzeko minutu batzuk hartu
ostean, elkarri begiratu zioten.
Beharbada biek pentsatu zuten,
egoera horretara heldu aurretik nor-
baitekin hitz egin izan balute asko
lagunduko ziela.

Haurdun zegoen jakiteko probak egi-
tea proposatu zion amak Garaziri,
baina dirudienez oso azkar zen haur-
dun zegoen jakiteko. Zenbat denbo-
ra igaro zen eta hilekoa noiz zen
etortzeko galdetu zion amak
Garaziri. Zazpi eguneko atzerapena
zuen hilekoak.

Lasai egoteko esan zion amak
Garaziri, aitak eta biek ahal zuten
guztian lagunduko ziotela, eta saiatu
zedila lo egiten eta atseden hartzen.
Hurrengo egunean familia-plangin-
tzako zentrorra joango zirela informa-
zio bila.

Garazi lasaiago sentitu zen. Oheratu
eta desagertu egin zitzaion itxarote
larriariaren ondorioz egun horietan
bildutako tentsioa. Lo hartzea lortu
zuen.

Hurrengo egunean ez zen beharrez-
koa izan familia-plangintzako zentro
batera joatea, Garazik hilekoa izan
baitzuen.

Nerabe batek eta haren gurasoek
sexualitatea nola bizi duten azaltze-
ko adibide egokia izan daiteke fik-
tiziozko egoera hori. Nerabezaroko
sexualitatearen inguruko gai batzuk
jorratu nahi ditugu adibide horrekin.

Kale hezitzaileak



Kale hezitzaileak



Nola bizi dute nerabeek sexualitatea?

Ohizkoa da nerabeek sexualitatea kontuzko gai gisa bizitzea. Sexualitateak hankaz gora jartzen du nerabeen bizitza eta ardura sortzen du nerabeengan; halere, ez da bat ere erraza izaten horri buruz hitz egitea. Izan ere, nerabeek pubertaroan zehar (9-15 urte) izaten dituzten hainbat gorputz-aldaketen ondorioz, pertsona heldu baten gorputza izatera pasatzen baitira, horrek dituen aukeekin eta arriskuekin. Batzuetan, gorputz-aldaketa hori ez dator bat neska/mutikoaren heldutasunarekin, eta bi alde horien artean ez dago orekarik. Gorputz-aldaketa horiek bere haur-nortasuna erasotzen duten etsai gisa ikusi dezake nerabeak, edo bere gorputz berria aliatu gisa erabil dezake. Edonola ere, aldi horretan garrantzi handia izaten dute gorputzak eta sexualitateak.

Zergatik kostatzen zaie horrenbeste gurasoei seme-alabekin sexualitateari buruz hitz egitea?

Orokorrean, seme-alabekin, horiek nerabeak direnean, edozein gairi buruz hitz egitea asko kostatzen zaie gurasoei. Garai horretan, gurasoen-gandik aldentzeko joera dute seme-alabek; bestalde, ziurtasun-gabezia handia eta gurasoen premia izaten dute. Horregatik, ohikoa da nerabeek sexualitateari buruzko informazioa

etxetik kanpo bilatzea. Gurasoek seme-alabak sexudun pertsona gisa ikusteko duten zailtasuna batzen zaio lehen aipatutakoari, seme-alabak haur izaten jarraitzea nahi izaten baitute. Gainera, gerta liteke seme-alaben sexualitateak gurasoei beraien bizitza sexualean izandako egoerak berriz ere gogoraraztea, edo gai horren inguruan seme-alaben aurrean ezjakin agertzeko beldurra sentitzea.

Zerk beldurtzen ditu gurasoak?

Seme-alaben arriskuzko jarrerak dira gurasoen beldurrik handienak. Hau da, neurririk ez hartzeagatik, antisorgailuak, haurdun geratzea edo sexu-transmisiozko gaixotasunak hartzea.

Eta nerabeak?

Batzuetan nerabeek ez dakite antisorgailuak erabili gabe sexu-harremanak izatea arrikutsua dela, eta beraz, ezinbestekoa da gurasoek arrisku horien berri ematea seme-alabei. Gaur egun ezkontza aurreko sexu-harremanak ez dira tabuak, lehen gertatzen zen moduan. Kasu askotan oso goiz ematen dira sexu-jokabideak (15-16 urte).

Nahi gabeko haurdunaldiak, antisorgailuek eta, hein batean, sexu-transmisiozko gaixotasunek kezkatzen dituzte neskak. Adin horretako mutilen kasuan, bigarren mailan geratzen dira aipatu ditugun kezka horiek. Haurdun ez geratzeko ardura neska-aren esku uzteko joera dute mutilek. Mutilek sexu-harremanean kale ez egiteko ardura izaten dute, eta sexu-gaietan jakitunak direla erakustekoa. Biek izaten duten birjintasuna galtzeko kezka. Helduen munduan sartzeko igaro beharreko inimizazio-erritu gisa ikusten dute nerabeek birjintasuna galtzea. Baretzeko oso zailak diren beldurrak, fantasiak eta ziurtasun-gabeziak sortzen ditu birjintasuna galtzeko nahiak. Gainera, gaur egun helduen nortasuna bilatzeko orduan garrantzi handia du birjintasuna galtzeak, eta batez ere berdinen onespena lortzeko orduan. Helduek egiten dutenez, helduak izateko sexu-harremanak izatea beharrezko dela iruditzen zaie nerabeei. Hori dela eta, lehenengo esperientzia horrek nerabeen emozio-egoeretan duen garrantzia gutxieteko ohitura dago.

Zein dira modu naturalean sexualitateari buruz hitz egiteko jarraibideak?

Jakingura eta zalantzak beti izango dituzte nerabeek. Horregatik, garrantzitsua da entzuterakoan interesa erakustea, gai horren inguruan ez moralizatzea eta ulerkorra izatea, nerabeek beren jakingura bete dezaten, ahal den neurrian. Zalantza horien inguruko galderak egiteko une egokiaren zain egoten dira nerabeak, eta askotan zeharka egin ohi dituzte galdera horiek. Halere, aurretik azaldu dugun moduan, nerabeek familiatik kanpo bilatu ohi dute informazioa. Edonola ere, oso garrantzitsua da gurasoek informazio egokia eta egiazkoa ematea seme-alabei. Oinarritzkoa da nerabeak esan nahi duena entzutea, eta bizitako egoera edo bizipen desatseginei edo deserosoei buruz hitz egiteko ez duela beldurrik izan behar jakinaraztea. Galdetu dezaketenez ezer ez da tontakeria (lehen aldiari beldurra, preserbatibo bat eskatzea, zakilaren tamaina...). Nola ez, gurasoek beren buruak ezjakin gisa aurkezteko eskubidea dute gauza jakin batzuetan; zeren, beraiek ez baitute adituak izateko beharrik, ezta sexualitatearen inguruan beraiazko heziketa izatekoa ere.

Los jóvenes viven la sexualidad como un tema delicado. Y es que en la adolescencia el cuerpo pasa a ser el de un adulto, con las oportunidades y los riesgos que ello conlleva. El adolescente no siempre comparte sus dudas y preocupaciones con los padres y madres. A esto se le puede unir la dificultad por parte de los padres para ver a sus hijos/as como seres sexuales. El mayor temor por parte de los padres y madres suelen ser el contagio de alguna enfermedad de transmisión sexual y el embarazo. Por otro lado a los adolescentes les preocupa la falta de seguridad y la pérdida de la virginidad. Por eso, es importante que al escuchar se muestre interés y no moralizar entorno a este tema y ser comprensivos.

aurrera begira

BAINA, ZER ARI GARA EGITEN GURE HAURREKIN?

Alvaro Iruin
Psikiatra.

Osakidetzako Gipuzkoako ospitaletik kanpoko osasun mentaleko gerentea eta laguntza psikoatrikoko eta osasun mentaleko arduraduna



Aldizkari honen 7. zenbakian, 2006ko apirilkoan, haurrak zaintzeari buruzko hainbat "aholku" zetozen azken orrialdean. Ondorengo lerroetan aholku horietako batzuei buruz hitz egin nahi nuke.

Egia esan, nahiz eta aipaturiko aholkuok oinarritzkoak izan, badirudi guraso-oi orokorrean zailegi egiten zaigula horiek aurrera eramatea. Esate baterako, gurasoen arauak edo gure seme-alabekin jolasteko eguneroko denbora-tartea, pixkanaka galduz doaz gaur egungo familia askotan.

Lehenik eta behin, begiratu dezagun zer testuingurutan bizi diren gaur egungo neska-mutikoak. Eskola-aldian, goizez hasi eta arratsalde erdian bukatzen da horien eguneko jardueren programa. Denbora horretan, ikastetxeko kideekin eta irakasleekin egoten dira haurrak.

Kasuen ehuneko handi batean, ikastetxean bazkalduko du haurrak eta arratsalde erdialdera etxera joango da. Askotan, familiar batek jasoko du eta "eskolaz kanpoko" jardueraren batera eramango du. Gure gizarte-ereduan eskolako jarduerak baino garrantzia handiagoa dutela dirudi eskolaz kanpoko jarduerak. Egia esan, inork ez daki zergatik eman diegun jarduera horiei horrelako derrigortasuna; gaur egun pentsaezina da gure seme-alabek "eskolaz kanpoko" jarduerarik ez egitea: hizkuntzak ikastea, musika eta instrumentuak jotzen ikastea edo helburu erdi-profesionalekin kirolak egitea.

Horien ostean, etxera itzuliko da kanpokoan 10 ordu edo gehiago egon ondoren

eta "etxeko lanei" egin beharko die aurre. Horretarako, beharrezko kontzentrazio-gaitasuna eta interes-maila izan beharko du, eta egiten ari dena benetan ulertzeko laguntza. Halere, kasurik onenean, haren gurasoek edo arduradunek, lan-egun luze eta gatazkatsu baten ondoren, bakarrik egiteko lasaitasun-une bat besterik ez dute nahiko etxera itzultzerakoan.

Ondoren, afaltzeko ordua etorriko da eta afalostean oheratzekoa. Hori da egungo gurasoek galdu ez dugun arauetariko bat, baina balio eztabaidagarria duena. Elikadurarekin batera, familian arazo gehien ematen duenetarikoa da oheratzeko ordua. Une zailak dira ordu horiek, eta eguneko lasaitasun, konpainia, afektu eta ongizate apurra lortzeko borrokatzen dira familiako kide guztiak. Dirudienez denen beharrak batzea ezinezkoa izan ohi da. Horrela bada, lo egiteko eta hurrengo egunerako suspertzeko ordua helduko da.

Eguneroko funtzionamendu-eskema hori estresagarria da nagusi askorentzat. Hori dela eta, honako galdera hau egin nahi nizukeke: eta haurrentzat?

Galdera horri erantzuna aurkitzeko, beharbada nahikoa izan daiteke antsietate- eta tristura-bizipenekin lotura duten sintomatologiengatik haurrentzako eta gazteentzako kontsulta psikiatrikoetan izan diren aldaketei begiratzeari. Egiazki, azken 10-15 urteetan, psikiatria-arretan arrazoi horregatik izandako kontsulta-kopurua asko handitu da bai nagusien artean, bai haurren artean.

Nahiz eta lan- eta bizitza-erritmoa hainbat alderdik baldintzatzen duten eta nagusiek eginiko aukera den, haurrak gurasoen nahiaren eta beharren subjektu pasiboak dira, eta oso gaitasun txikia dute gurasoen erabakiei kontra egiteko. Haurrak ez ditu argi ikusten eta ulertzen familiaren funtzionamenduarauak, ezta zein den bere lekua familia-egiturean. Hori dela eta, ez da gai jarri dioten funtzionamendu-eredua ulertzeko eta bere egiteko. Horrek haurrengan ziurgabetasun eta gabezia anitz sortzen ditu eta, zalantzarik gabe, gurasook gara horien erantzuleak.

Ahalegin handiagoa egin behar dugu. Hasteko, muga eta arau argiak jarri behar ditugu familian, eta egoera berria haurarentzat eramangarria izateko, beraien hazkuntzan mailasun eta laguntza gehiago eman behar diegu. Gurasoen ahotan behin baino gehiagotan entzun ohi dugu neska-mutikoak haurtxo izateari uzten diotenean bukatzen direla gauza onak. Hala ere, adin horretatik aurrerakoa da, hain zuzen, elkarren arteko elkarrekintzatik ikasteko eta, zalantzarik gabe, gure seme-alaba guztiek dituzten berebiziko gaitasunak aprobetxatzeko unerik onena.

Ahalegin horrek, jakina, bere saria jasoko du, gure seme-alabek dituzten arazoetariko asko beraiei entzunez eta beraien izateko era onartuz konpontzen direla ikusten dugunean, kanpora, osasun-zerbitzuetara edo antzekoetara jo gabe.



aurrera begira